

EKONOMI GARAPEN ETA MERKATARITZAKO TEKNIKARI LANPOSTUA

ZEIN LANPOSTUTARAKO EGIN DEN DEIALDIA

LANPOSTUAREN IZENA	Ekonomi Garapen eta Merkataritzako teknikaria
KONTRATU-MOTA	Aldi baterako lanpostu hutsa. Kontseiluak onartutako 2025eko EPEko plaza behin betiko bete arteko aldi baterako kontratua.
BEHIN-BEHINEKOTASUNA	Lanpostu finkoa betetzeko hautaketa-prozesua egin arte.
EUSKARAREN EZAGUTZA	C1 maila lanpostuan sartzeko baldintza gisa.

BERARIAZKO BETEKIZUNAK

ESKATUTAKO TITULAZIO AKADEMIKOA	Unibertsitate gradua.
EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintzailtza - Enpresen lehiakortasuna hobetzea - Berrikuntza sustatzea eta barneko eta kanpoko ezagutza transferitzea - Proiektuak kudeatzea - Talentua/pertsonak kudeatzea - Hiri eraldaketako proiektuak - Berrikuntza publikoa -
GAITASUNAK	<ul style="list-style-type: none"> - Harremanak ezartzea / Komunikazioa - Sormena - Malgutasuna - Egokitzeko eta ikasteko gaitasuna - Erantzukizuna - Emaizetara bideratua - Ekimena eta erabakiak hartzea - Heldutasuna, egonkortasuna eta autokontrola - Lankidetzeta eta talde lana - Antolatze gaitasuna -

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

LANPOSTUAREN EGITEKOA:

Eraginkortasunez eta efizientziaz garatzea eta gauzatzea Donostia Sustapenaren estrategiarekin koherenteak diren ekintzak, sozietatearen helburuak lortzeko eta estrategia hori aberasten laguntzeko.

JARDUERA EREMUAK

ESTRATEGIA

- Erakundearentzat interesgarriak izan daitezkeen ekimenak eta aukerak identifikatzea eta ezarritako prozeduraren arabera transmititzea.
- Kanpoko eragileekin lankidetzan aritzeko aukerak identifikatzea eta harreman sendoak ezartzea beren eskumen esparruko jarduerara garatzeko.
- Bere esparruko jardueraren jasangarritasuna bilatzea, eta, horretarako, finantzaketa iturri posibleak identifikatzea (eta ezarritako prozeduraren arabera transmititzea), bai eta bere ardurapeko jardueraren kostuak optimizatzea ere.
- Estrategia ezartzen eta egokitzen laguntzea bere jardun eremuan, eta, horretarako, merkatua ez ezik jarduerara eta haren emaitzak ere behatzea.
- Urtero, Sustapenaren estrategiarekin koherenteak izan daitezkeen helburuak eta proiektuak proposatzea, bere lan eremuaren barruan.
- Urtero aurrekontua egiten parte hartzea, eta bere jardun eremuari dagozkion proposamenak egitea.

JARDUERA

- Helburuak lortzeko dagokion jarduerara ezarritako epe eta kostuen barruan garatzea.
- Bere ardurapeko lan prozesuen gaineko hobekuntzak definitzea, berrikustea eta identifikatzea
- Bere ardurapeko lan prozesuak gainbegiratzeko eta prozesu horien bilakaerari buruzko informazioa ematea, ezartzen den aldizkakotasunarekin (txostenak, adierazleak...).
- Jarduerara gauzatzeko hornitzaileen zerbitzuak kontratatzea, kasuak hala eskatzen duenean, eta, horretarako, erakundearen ezarritako kontratazio prozesuei jarraitzea.
- Hornitzaileei azpikontratutako/kontratutako jardueren jarraipena egitea, eta ziurtatzea betetzen direla kalitatea, kostua eta epeak.
- Jarduerara garatzeko behar diren ekitaldiak antolatzea eta horietan parte hartzea.
- Jardueraren kanpo komunikaziorako egiten diren jarduerak proposatzea eta horietan parte hartzea.
- Aurrekontuaren jarraipenean parte hartzea, ezartzen den aldizkakotasunarekin.

KOORDINAZIOA

- Hartu-eman bizia izatea eta, gutxienez, hileroko bilerak egitea arduradunarekin, egiten duen jardueraren jarraipenari buruzko informazioa emateko, iradokizunak egiteko eta kontuan hartu beharreko jarraibideak jasotzeko.
- Funtzionalki koordinatzea bere ardurapeko ekintza zehatzak lortzeko eta/edo prozesuak kudeatzeko izendatzen zaizkion taldeak.
- Arlo bereko eta/edo beste lan eremu batzuetako gainerako teknikariek koordinatzea (bilerak egitea, aldizka informatzea...), jarduerara behar bezala garatzeko eta erakundearen helburu orokorreari laguntzeko.
- Ziurtatzea interesdunei iristen zaiela jarduerara garatzeko informazio kritikoa eta epe egokian erantzuten zaiela.

- Proiektu talde gisa parte hartzea, hala ezartzen denean, eta, ildo horretan, esleitutako erantzukizunak bere gain hartzea eta proiektuak eskatzen dituen kalitate, kostu eta epeetan horietatik eratorritako ekintzak gauzatzea.
- Parte hartzen duen proiektuetako eta bere lan eremuaren berezko jardueraren artean sinergiak bilatzea, eta, hala, proiektuei zein jarduerari balio erantsia emango dieten ekintzak sortzea.

JARDUTEKO EREMU ESPEZIFIKOAK:

Aipatutako eginkizunak jardun eremu espezifiko hauetan garatuko dira:

- Hiri-ekonomia
- Ekintzailtza
- Enpresen lehiakortasuna hobetzea
- Berrikuntza sustatzea eta barneko eta kanpoko ezagutza transferitzea
- Kofinantzatutako proiektuak kudeatzea
- Enplegua/Talentua
- Hiri eraldaketako proiektuak
- Berrikuntza publikoa